

## Argazkilari eta bideo egile gazteek hiriarri buruzko ikuspegia erakutsiko dute Montehermoson, Goiurin, Zuloan eta Zas espazioan

Andoni Elizondo Donado, Elisa Pérez Velasco, Idoia Ruiz Moraza eta Amaia Ugarte Álvarezek irabazi dute 2017ko Tetrapack

Martxoaren 31tik maiatzaren 1era arte, lau leku horiek Gasteiz sormenetik ezagutzea proposatuko dute

Gazteria Zerbitzuak antolatu du Tetrapack, eta horretan lankide izan ditu Zas kultur espazioa, Zuloa Irudia liburu-denda, Montehermoso Kulturunea, Gauekoak eta eta Biltzar eta Turismo Zerbitzua

Gazte Klik Klak lehiaketa irabazi zuten lau gazteek beren ikuspegia erakutsiko dute argazki eta bideo-sorkuntzen bidez, hiriko lau lekutan, maiatzera arte. Gazteria Zerbitzuak sustatutako Tetrapack programaren barruan aurkeztuko dituzte proiektu pertsonal horiek. Zortzigarren edizio honetan, **Iñaki Larrimbek** eta **Anna Pinottik** egin dituzte komisario lanak eta **Zas kultur espazioa, Zuloa Irudia liburu-denda, Montehermoso kulturunea, Gauekoak eta Biltzar eta Turismo Zerbitzua** izan dituzte lankide.

Erakusketa **Gazte Klik-Klak** lehiaketaren emaitza da, zeina 25 urtetik beherako argazkilariei eta bideo egileei zuzenduta baitago. Hain zuzen ere, argazki sorta eta bideo-lan berriak ekoizten jarraitzeko aukera da irabazleentzako saria, hots, **Tetrapack 2017**.

Andoni Elizondo Donado, Elisa Pérez Velasco, Idoia Ruiz Moraza eta Amaia Ugarte Álvarezek irabazi dute 2017ko Tetrapack

Zortzigarren edizioan, turismoaren gaia aukeratu zuen **Tetrapack 2017** programak hautatutako lau pertsonak adierazpide gisa gara zezaten. *Turista zure hirian bertan* izan da lema. Hori dela eta, lehenengo aldiz, **Biltzar eta Turismo Zerbitzuaren** lankidetza izan da. *“Gure helburu nagusia irudiaren bitartez turismoari begirada gaztea gehitzea izan da, hori lurraldeen aurkikuntza sortzailatzat ulertuta. Gazte Klik Klak-Tetrapack ekimenean eta antzekoen bidez, berariazko lekuak ireki nahi ditugu gazteek euren sormen-grina gauzatu, eta ezagutzera eman ahal izateko, Udalaren Gazte Planak jasotzen duenaren ildotik. Izan ere, Gazte Planetik errealitatea pixkanaka aldatu nahi dugu”*, azaldu du Gazteriako zinegotzi Iñaki Prusillak.

Aurtengo erakusketa zeharo berria da, 4 erakusketa aretotan barrena ibilbide fisikoa egitea proposatzen baitu: **Montehermoso kulturunea** (bertan Andoni Elizondoren *Sobre los límites* lana izango dugu ikusgai), **Goiuri jauregia** (Elisa Pérez Velascoren *Censored* lana), **Zuloa Irudia liburu-denda** (Amaia Ugarte Álvarez, *Relatos*) eta **Zas kultur espazioa** (Idoia Ruiz

Moraza, *Miradas*). Era berean, ibilbide birtual bat egingo da, gure hiriko hainbat leku agertzen baitira erakusketaren artelanetan, 2017ko Tetrapack erakusketaren katalogoarekin datorren **mapan** bilduak. Erakusketa areto guztietan plasma monitoreak izango ditugu, eta horien bidez informazio guztia eta lau artisten lana eskainiko da; orobat, udalaren web-orriaan aurki daitezke ordutegiak eta 2017ko Tetrapack-en lotutako argibideak.

Ordutegia:

**Astelehenetik ostiralera:**

Goizez, 11:30 – 13:30

Arratsaldez, 17:00 – 19:00

**Larunbat, igande eta jaiegunetan:**

11:30 – 13:30.

## Jóvenes fotógrafos y videocreadores exponen su visión de la ciudad en Montehermoso, Villa Suso, Zuloa y espacio Zas

**Andoni Elizondo Donado, Elisa Pérez Velasco, Idoia Ruiz Moraza y Amaia Ugarte Álvarez son las personas ganadoras de Tetrapack 2017**

**Desde mañana, 31 de marzo, hasta el 1 de mayo los 4 espacios proponen descubrir Vitoria-Gasteiz desde la creatividad**

**Tetrapack, impulsado por el servicio de Juventud, cuenta con la colaboración de ZAS Kultur, Librería Zuloa Irudia, Centro Cultural Montehermoso, Gauekoak y el servicio de Congresos y Turismo**

Los cuatro jóvenes ganadores del concurso Gazte Klik Klak exponen hasta el mes de mayo en cuatro espacios de la ciudad su visión creativa, a través de fotografías y video creaciones. Estos proyectos personales forman parte del programa Tetrapack, una iniciativa del Servicio de Juventud. Para esta octava edición, comisariada por **Iñaki Larrimbe** y **Anna Pinotti**, cuenta con la colaboración de **ZAS Kultur, Librería Zuloa Irudia, Centro Cultural Montehermoso, Gauekoak y Servicio de Congresos y Turismo**.

Esta exposición nace del concurso **Gazte Klik Klak**, una propuesta creativa destinada a fotógrafos/as y vídeo creadores/as menores de 25 años. El premio, para las y los autores de las obras ganadoras de ese certamen es la oportunidad de seguir trabajando en la producción de nuevas series fotográficas y trabajos en vídeo: **Tetrapack 2017**.

Andoni Elizondo Donado, Elisa Pérez Velasco, Idoia Ruiz Moraza y Amaia Ugarte Álvarez son las personas ganadoras de Tetrapack 2017

**Tetrapak 2017** se ha decantado por abordar en su octava edición el tema del turismo como campo de expresión para las cuatro personas seleccionadas: Turista en mi ciudad ha sido el lema, de ahí que por primera vez cuente con la colaboración del **Servicio de Congreso y Turismo**. *“Nuestro objetivo final es aportar una visión joven a través de la imagen del turismo, entendido éste como un proceso de descubrimiento creativo de los territorios. Con iniciativas como Gazte Klik Klak-Tetrapack queremos generar espacios específicos para la creación y difusión de la creación joven como se recoge en el Plan Joven Municipal. Esa realidad que queremos transformar poco a poco desde el Plan Joven”*, explica el concejal de Juventud, Iñaki Prusilla.

La exposición este año es novedosa ya que propone un recorrido físico por los 4 espacios expositivos: **Centro Cultural Montehermoso** (donde se sitúa la obra de Andoni Elizondo Donado *Sobre los límites*), **Palacio de Villasuso** (Elisa Pérez Velasco, con *Censored*),

**Librería Zuloa Irudia** (Amaia Ugarte Álvarez, con *Relatos*), **Espacio cultural Zas** (Idoia Ruiz Moraza con *Miradas*) y a su vez un recorrido virtual, ya que hay numerosos espacios de la ciudad que se referencian en las obras de la exposición y se recogen en el **mapa** que incluye el catálogo de Tetrapack 2017. En todos los espacios expositivos se incluyen monitores de plasma con toda la información y la obra de los 4 artistas, asimismo todos los horarios se recogen en la página web del Ayuntamiento junto a todos los datos relativos a Tetrapack 2017.

Horarios:

**De lunes a viernes:**

Mañanas de 11:30 a 13:30

Tardes de 17:00 a 19:00

**Sábados, domingos y festivos:**

De 11:30 a 13:30